

EAeko 2011-2016ko Elikagaien Segurtasuneko Ikerketarako Plan ERAGILEAREN EBALUAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko 2011-2016ko Elikagaien Segurtasuneko Ikerketarako Plan Eragilea 2010ean egin zen, Elikagai-industriaren eta kalitatearen 2010-2013ko Plan Estrategikoko estrategietako bat (**Ikerketa sendotzea, EAEn elikagaien segurtasunaren maila albait handiena izan dadin**) zabaltzeko jarduketa gisa.

Honako hau da ikerketa-planaren helburua: **“nekazaritzako elikagaien katean sar daitezkeen eta giza osasunean arazoak sortitzaketen arriskuak antzematen, kontrolatzen eta horiei aurrea hartzen lagunduko duten ikerketa-proiektuen aldeko apustua egitea eta horiei babesa ematea”**.

Helburu hori lortzeko, hainbat ekintza jarri dira martxan, plana indarrean egon den sei urteetan:



1 + 2 + 3 + 4 + 5 = EKINTZAK



EKINTZAK

1 ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO IKERKETARAKO KOORDINAZIO MAHAIA SORTZEA, PLANA EZARTZEN DELA BERMATZEKO, BERAU KONTROLATZEKO ETA PLANAREN JARRAIPENA EGITEKO. HONAKO ERAGILE HAUEK IZANGO DIRA KOORDINAZIO MAHAIAKO KIDEAK:

- EUSKO JAURLARITZA: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak kudeatzen eta finantzatzen du elikagaien segurtasunaren arloko ikerketa; hortaz, hura izango da mahaiko presidentea. Bestalde, Osasun Publikoaren Zuzendaritza ere mahaikide izango da, hark garatzen eta ebaluatzen dituelako osasuna babesteko politikak.
- ELIKA, Elikagaien Segurtasunaren arloko aholkularitza zientifiko-teknikoa ematen duen erakundea, eta organo horren idazkaritza teknikoa.
- BIOEF, euskal autonomia erkidegoko osasun-sisteman berrikuntza eta ikerketa sustatzeko euskal fundazioa
- EAEn Elikagaien Segurtasunaren arloko i+g+b esparruan jarduten duten euskal erakundeak: AZTI, NEIKER, EHU eta LEARTIKER..

2 ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO IKERKETARAKO SARBIDE PUBLIKOKO PLATAFORMA GARATZEA, ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO LEHENTASUN-ILDOAK, PLANEAN JASOTZEN DIREN PROIEKTUAK ETA PROIEKTU HORIEK EGITEN DITUZTEN EAeko IKERKETA-TALDEAK PARTEKATZEKO ETA ZABALTZEKO.

3 3,3 MILIOI EUROREKIN FINANTZATUTAKO 80 IKERKETA-PROIEKTU ABJARATZEA. PROIEKTUOK BALIAGARRI IZAN ZAIZKIO EAeko ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO ZIENTZIA BATZORDEARI, NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN EUSKAL KATEAN SAR DAITEZKEEN ARRISKUAK MURRIZTEKO ETA PREBENITZEKO RRISKUAK EBALUATZEKO EUSKARRI GISA.

4 EUROPAKO HIRU SARETAN PARTE HARTZEA, ELIKAKATEKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ARLOKO IKERKETA-ERAKUNDE PUBLIKOEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO.

- SAFEFOODERA, Elikagaien Segurtasunari buruzko ERANET(2004-2011)
- SUSFOOD, Elikagaien Ekoizpen eta Kontsumo Jasangarriari buruzko ERANET (2011-2017)
- SusAn, animalia-ekoizpeneko sistema jasangarriari buruzko ERANET (2015-2020)

5 ELIKAGAIEN SEGURTASUNeko IKERKETARAKO PLAN ERAGILEKO EZAGUTZA ETA EKINTZAK ZABALTZEKO KOMUNIKAZIO-PLAN BAT EZARTZEA, ETA ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO PROIEKTUEN EMAITZAK ZABALTZEKO URTEKO JARDUNALDIAK GAUZATZEA.

Ikerketarako Plan Eragile hau Elikagaien Segurtasunaren arloan esk hartzen duten eragile nagusien laguntzarekin eta elkarlanarekin egin da, Elikagaien Segurtasunaren arlora bideratutako baliabide ekonomikoak optimizatuz.



LANERAKO ILDOAK

EZAGUTZA ZIENTIFIKOA ETA TRANSFERENTZIA TEKNOLOGIKOA SORTZEA



1. HELBURUA: Zientzia Batzordeari lehentasunezko ikerketa-proiektuen inguruko informazioa eta datuak ematea, sor daitezkeen arriskuak berriro ebalua ditzan, eta arrisku-kudeatzaileei zientzia-bikaintasun onena, berriena eta gardenena eskaintzea, nekazaritzako elikagaiekin loturiko arriskuak saihestu edo murrizteko erabaki koherenteak hartu ahal izan ditzaten.

I+G+B ARLOKO ERAGILEEN ETA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAREN ARTEKO ELKARLANA BULTZATZEA



2. HELBURUA: Elikagaien Segurtasuneko I+G+b-ren arloko eragileak eta nekazaritzako elikagaien sektore pribatukoak elkarrekin lan egitera bultzatzea, ikerketa proiektuen bitartez sektore horretako benetako beharrei eta eskariei erantzun ahal izateko.

3. HELBURUA: Europako sare eta aliantzekiko lankidetzak sustatzea, elikagaien segurtasunaren arloko ikerkuntza-behar nagusiei hobeto erantzun ahal izateko.

IKERKUNTZAREN ERAGINKORTASUNA ETA IKERKETARAKO BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA



4 HELBURUA: Epe ertain-laburrera identifikaturiko ikerkuntza-beharrei lehentasuna ematea, ahaleginak bateratzeko, sinergiak partekatzeko eta ikerketaren arloko giza baliabideak eta ekonomikoak optimizatzeko.

5 HELBURUA: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eta Osasun Sailak lehenetsitako ikerkuntza-beharrak diruz laguntzea, erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera eta sailok elikagaien segurtasunaren arloan dituzten eskumenei jarraituz ezartzen dituzten estrategien arabera.

EZAGUTZA TRANSFERITZEA ETA EMAITZAK ZABALTZEA




6 HELBURUA: Komunikazio Planean jasota daude Elikagaien Segurtasuneko Ikerketarako Plan Eragilearen edukia zabaltzeko egingo diren jarduerak, batetik, eta plan horrekin loturiko ikerketa-proiektuen emaitzak transferitzeko jarduerak, bestetik.


EMAITZAK




1. ETA 5. HELB.: Elikagaien segurtasunaren arloan diruz lagundutako proiektu-kopurua




2. HELB.: Nekazaritzako elikagaien sektoreak laguntzen dituen proiektuen %




4. HELB.: Identifikaturiko premien kopurua




5. HELB.: Jarritako aurrekontu-baliabideak (€)




1. HELB.: Arriskuak berriro ebaluatzen eta arrisku berriak detektatu eta ebaluatzen laguntzen duten proiektuen %



3. HELB.: EJK parte hartzen duen Europako sareen kopurua



4. HELB.: I+G+b proiektuetan jorratutako lehentasunezko azken beharren %



6. HELB.: Plana zabaltzeko eta transferitzeko ekintzen kopurua

